



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2018ko MARTXOAREN 16an EGINIKO EZ OHIKO UDAL BATZAREN AKTA

2018ko martxoaren 16an, Asteasuko Udaletxeko Idazkaritzako bilera gelan, arratsaldeko 15:15 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)
Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV), Izaskun Echeverria Erquicia (EAJ/PNV).

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERRENDIA:

- 1. 2018ko Udal aurrekontuen 1. Kreditu aldaketa: Kreditu Gehigarriaren hasierako onespina eta Bitarteko Idazkari Kontu hartzailearen txostenaren berri ematea**

.../...

LEHENENGO PUNTUA.

- 1. 2018ko Udal aurrekontuen 1. Kreditu aldaketa: Kreditu Gehigarriaren hasierako onespina eta Bitarteko Idazkari Kontu hartzailearen txostenaren berri ematea**

Alkate andreak presazko proposamena egin du, Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman ez duelarik.

Udalbatzarrak, 2018ko martxoaren 13an eginiko ez ohiko bilkuran, Lege Zaharren enparantzaren urbanizazioaren oinarritzko proiektua onetsi zuen, Soroa Arquitectos, S.L.P.k 2018ko otsailean idatzita.

Horrekin zuzenean lotuta, martxoaren 19an amaitzen da Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak eskatzeko epea (Urtarrilaren 18ko 13 zenbakia duen EHAAn argitaratuta), eta aipatu espediente horretan puntuazio altuena lortzeko helburuarekin, 2018 urtean aurrekontu orokorretako ordainketa kreditua izatea komenigarri zaio Udalari, alegia, apirilera ordainketa kreditua dagoela egiaztatu ahal izatea.

Une honetan, 2018ko aurrekontu orokorren proiektua jende aurreko izapidean dago, eta horri baldintzatuta, aipatu aurrekontuen lehenengo kreditu aldaketa izapidetzea guztiz presazkoa dela deritzo alkate andreak, aipatutako diru-laguntza lortzeko asmoarekin.

A.F.A.ren 82.3 artikuluekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

Proposamena:

Udalbatzarrak, 2018ko martxoaren 5ean eginiko ohiko bilkuran, hasiera batez onartu ditu 2018ko Aurrekontu Orokorra, Udal Aurrekontua Gauzatzeko Araua, 2018ko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrenda.

Iragarkia Udaleko iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratu da; halaber, iragarkia 2018ko martxoaren 12ko 50 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da. Iragarki horiekin bat, jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Aurrekontu Orokorra, Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrenda onartutzat joko dira behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe; jende aurreko epea apirilaren 5ean amaituko da.

Une honetan, Udalak dituen premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu egitea 2018 urtean zehar, izan ere, herriko plazaren urbanizatzeko lanei hasiera emateko asmoa dauka udalak, segidan adierazten den moduan.

Udalbatzarrak, 2018ko martxoaren 13an eginiko ez ohiko bilkuran, Lege Zaharren enparantza urbanizazioaren oinarritzko proiektua onartu du, Soroa Arquitectos, S.L.P.k 2018ko otsailean idatzita.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Besteren artean, honela dio erabaki horrek:

“Herriko plaza, asteasuarrentzat, betidanik biltoki gunea izan ohi da, baina gaur egun orain eta gehiago, ikusirik erdigunean kokatzen dela eta inguruan kokatutako kiroldegia, frontoia ,kultur etxea, mediku kontsulta, eta udaletxeak borobiltzen duela. Beraz, plaza hau da, herritarren aisia eta bizitza sozialerako topaleku egokiena, baina horretarako egokitzapenak behar ditu, gutxieneko aisialdirako azpiegiturekin, gaur egun duen egoera nahiko txarra delako, eta trafikoari ere partzialki irekia dagoelako, horrek sortzen dituen arriskuekin. Asteasuk, hirigunetik aparte beste hainbat auzo ditu, Upazan, Goiballara, Errekaballara, Elizmendi eta Beballara, diseminatuak, eta baserriz josiak. Nahiz batzuk herri gunetik aparte egon, herritar ororentzat plaza hau erreferentziala da, bere topagunea da.

Proiektu honen bidez, herriko plaza bere inguruetako zerbitzu eskaintzara egokitu eta ingurune irisgarri eta segurua bilakatu nahi da, aipatutako gabezia hauei erantzun bat emateko. Horretarako plaza trafikoari itxi eta ingurua guztiz berrituko da. Modu honetan Asteasuko herriak eta biztanleak garapen handia lortuko dute. Garapen hau honako eremuetan atzemango litzateke:

Herriko plazaren irisgarritasuna hobetuko da: herritar ororentzat irisgarria eta inolako oztoporik gabeko espazio publiko bat sortuko da. Herrian udal eraikin berriak duen paper zentrala kontuan izanda eta herriko plaza eta inguruetan sorrarazi duen oinezkoen joan-etorrien kopurua handitu dela kontuan izanda ezinbestekoa da herriko plaza egokitzea irisgarritasuna bermatzeko. Esan beharra dago ere, kultur ekitaldi ugari izaten direla Asteasun, eta kanpotarrak asko bisitatzen dutela gure herria, hainbat proiekturen harira. Ezin ahaztu, Muskerraren Bidea, Bernardo Atxaga, herritarren lan literarioan oinarritua dagoenak, plaza duela amaiera puntua.

Segurtasuna bultzatuko da: gaur egun haur eta gazte kopuru handia du Asteasuk eta guraso askoren eskaera da plaza inguruko segurtasuna bermatzea. Egokitzapen lanekin, oinezkotze lanekin, haur eta gazteei begira guztiz segurua izango den aisia gunea sortuko da.

Herritarren bizi kalitatea asko handituko da : Herritarrek beraien bizitza soziala garatzeko topaleku berri bat irabaziko dute. Puntu honetan aipatzekoa da, Asteasun ez dagoela inolako eremu publiko ireki eta zabalik eskolako kirol eremua ezik. Era berean esan behar da Gipuzkoako herri gutxienetako bat izango dela non plaza ondotik trailerrak pasatzen diren.

Plazaren oinezkotzearekin, bere zentralitatearen garrantzia areagotu nahi da, irisgarritasun unibertsala, genero perspektiba, euskararen erabilera, sostengarritasuna kontuan hartuz. Baita ere, bere bueltan kokatzen diren Udal Bulegoak, Kiroldegia, Kultur Etxea, Mediku Kontsulta eta lehenago aipatutako arkupearen erabilera eta protagonismoa handituko dira. Hain garrantzitsua den Kale Nagusiaren amaiera bat

izango da. Hein berean, herritarrek berea duten ingurune eta patrimonioarekin identifikazioa bultzatuko da.

Herri guneko trafikoa murriztu eta ordenatuko da. Orain arte trafikoa plaza ingurutik pasatzen den trafikoa kanpoaldera aterako da, mugikortasuna bultzatzeko, eta gunea oinezkoentzako erabat berreskuratzeko. Hemen galduko diren aparkalekuak, orain gutxi eratu den Lamiategi aparkalekura bideratuko dira.

Bestalde, herri batentzat ezinbestekoa da topaleku funtzioa beteko duen espazio publiko duin, seguru, irisgarri eta egokia izatea eta Asteasun falta da hori. Herriko plazak duen topaleku zentzua modu duin batean berreskuratu behar du, izan ere , aurretik esan bezala, bere inguruan kokatzen baitira hain garrantzitsuak diren zerbitzu publikoak, udal Bulegoak, kiroldegia, mediku kontsulta eta Kultur Etxea, herritarrek hainbeste erabiliak”.

Aipatu urbanizazioaren oinarrizko proiektua diru-laguntzak eskatzeko eta partaidetza prozesu bat egiteko erabilia izango da eta, ondoren, behin betiko proiektua idatziko da lanen kontratazioari ekiteko.

Udal honetako aurrekontuaren proiektuaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik 2018an aipatutako gastuei aurre egiteko, izan ere, 75.000€ko aplikazioa jaso da bakarrik. Nolanahi ere, kontratazio espedientea onartu aurretik, konpromiso kreditua sortzeko espedientean izapidetu beharko da.

Bitarteko Idazkari Kontuhartzaileak 2018ko martxoaren 16an eginiko txostenarekin bat, eta zehazki, egonkortasun, iraunkortasun eta gastu arauari dagokionez.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen aho batez,

ERABAKI DU

Lehena. Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	275.000,00



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA	275.000,00
-----------------------------	------------

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	275.000,00
GUZTIRA		275.000,00

Onespena baldintzatuta dago 2018ko Aurrekontu Orokorrek, Udal Aurrekontua Gauzatzeko Araua, 2018ko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrenda behin betiko izaeraz onartzeari.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du gaueko 15:27 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2018ko martxoaren 16an.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea